

2015/2016

# Historiaurrea 23: Ehiztari- biltzaileen ume ehorzketak eta beraien inguruko eztabaida

Egilea: Maitane Jiménez Juárez

Historiako gradua: 4. maila

Geografia, Arkeologia eta Historiaurreko saila

Tutorea: J.A. Mujika Alustiza

UPV-EHU

## **Aurkibidea**

Laburpena/ <i>Abstract</i>	2
1. Sarrera	4
2. Ehorzketak identifikatzeko eztabaidak	5
3. Ehorzketa-erritualen inguruko hipotesien historia	6
4. Ehiztari-biltzaileen umeen ehorzketak	
4.1. Behe eta Erdi Paleolitoa	8
4.2. Goi Paleolitoa	12
4.3. Epipaleolitoa eta Mesolitoa	16
4.3.1. Banakako hilobiak	16
4.3.2. Hilerriak	17
5. Ondorioak	19
6. Bibliografia	22
7. Eranskina	31

## Laburpena

Ikuspuntu diakroniko batetik Paleolitotik Neolitora bitarteko talde ehiztari-biltzaileen umeen ehorzketak deskribatu eta analizatu ditugu. Honetarako, ez da garai bakoitzeko kasu guztien inbentarioa egin, aldiz, adibide deigarrienak (hobeto kontserbatuak eta aztertuak, etab.) kontuan hartu ditugu. Azalpen honen bidez, ehorzketen inguruan Europan nabaritzen diren jarrera orokorren ezaugarrietara gerturatuko gara.

Lehenengo, gaiarekiko hurbilpen bat egingo dugu umeen ehorzketen inguruko kontzeptu orokorrak azalduz (umea definitzeko irizpideak, euren papera ikerketan edota presentzia erregistro arkeologikoan, etab.). Hurrengo atalean, ehorzketen identifikazioaren inguruko arazoak eta eztabaidak azalduko ditugu: hezurren kontserbazioa, hezur isolatuak, hobiak eta hatuak. Hirugarren atalean, gai honen inguruan dagoen historiografia aipatzen dugu eta honekin batera hileta-errituen sorrerari buruzko hipotesiak.

Gaia jorratzeko, garai bakoitzeko kasu bereziak jaso ditugu, eta adibide horietatik abiatuz, jarrera orokorrak azaltzen saiatu gara. Behe eta Erdi Paleolitoko ehiztari-biltzaileekin hasiko gara, eta hauen urritasuna eta hilobiratzeen nahitakotasunaren inguruko zalantzak kontuan hartu beharreko faktoreak dira. Lehenengo garaiko bi aztarnategi (Gran Dolina eta Sima de los Huesos) aipatzen ditugu, eta Erdi Paleolitoko hiru: *El Sidrón*, *La Ferrassie* eta *Le Moustier*. Goi Paleolitoko *Lagar Velho*, *Sungir*, *La Madeleine* eta *Wachtberg* hilobiak aztertuko ditugu. Aldaketa nabarmenak sumatzen dira, eta ehorzketen, erritualen eta hatuen nahitakotasunari buruzko zalantzak desagertuko dira.

Azkenik, Frantziako eta Portugaleko Epipaleolitoko eta Mesolitoko azken ehiztari-biltzaileen ehorzketak aztertuko ditugu, azpimarragarria delarik lehenengo hilerrien agerpena. Hauek, Neolitoko lehenengo ekoizleen artean jarraipena izango dute eta talde hauek lurraldearekiko duten atxikimenduaren froga izango lirateke. Azkenik, ondorio moduan, gaiaren inguruko lerro nagusien laburpen orokorra, eta gizarte hauetan umeen ehorzketek ezagututako garapenaren azterketa, egingo dugu.

**Hitz gakoak:** Ehiztari-biltzaileak. Ehorzketak. Umeak. Kasu bereziak. Garapena.

## Abstract

*It is going to be described and analyzed, from a diachronic point of view, the hunter-gatherer's burials from the Paleolithic to the Neolithic. For that, it is going to be taken into account the most striking examples (the ones best preserved, the ones investigated, etc.), instead of doing an inventory including all the cases. Through this explanation we are approaching the main features of this epoch, about the burials in Europe.*

*On the one hand, along the first section of the work it is going to be explained some general concepts about children's burials (guidelines to how to describe a child, the role these take into the research or their presence in the archaeological register). On the other hand, during the second section the topic is going focused on the issues to identify a burial and the discussion (the preservation of the bones, the isolated bones, the graves, the trousseaus). As a final point, it is going to be expounded the historiography existent about this theme and, with that, the hypothesis about the appearance of funerary rites.*

*In order to develop the theme, it has been recover special cases of every epoch. Thus, it has been tried to explain the general behaviours, through those examples. All this work is organized starting with the hunter-gatherer's burials in the Lower and Middle Paleolithic, taking into account the factors of the shortage and the doubts around the intentionality of them. In the first epoch it is named two archaeological sites (Gran Dolina and Sima de los Huesos) and three sites are named in the Middle Paleolithic: El Sidron, The Ferrassie and Le Moustier. For the Upper Paleolithic Lagar Velho, Sungir, La Madeleine and Wachtberg are going to be studied. During this last epoch it can be observed that there is no longer a doubt about the intentionality of these burials, rites or trousseaus.*

*Finally, it is going to be studied the last hunter-gatherer's societies' burials of french and portuguese Mesolithic. During this mentioned epoch, it might be highlighted the appearance of the first cemeteries. These are going to continue during the first gatherer's society of Neolithic and they are going to be an evidence of the union bond these societies had towards theirs territories. To conclude, it has been made, broadly, a summary about the theme and, also has been made an explanation about the children's burials' development these societies undergo.*

**Key words:** *Hunter-gatherer's. Burials. Childs. Special cases. Progression.*

## 1. Sarrera

Gaiarekin hasi aurretik kontzeptu batzuk argitu behar dira: umea definitzeko erabilitako irizpideak, euren presentzia erregistro arkeologikoan, eta umeen heriotz arrazoiak.

Hildako bat umea den ala ez definitzeko irizpide desberdinak daude, eta askotan, honek eraikuntza sozial bati erantzuten dio (Lombo *et alii*, 2013: 42). Antropologia fisikoaren ikuspuntutik titia hartzen hasten denetik 1.go hagina atera arte (6-7 urteetara arte) umetzat hartzen da, ondoren gaztetzat. Ikuspuntu historikotik, aldiz, esperientziak eragina izango du, kultura aldetik umeek etapa desberdinak dituzte (Herrero, 2013a: 70-71). Bogin-en (2010) iritziz, haurtzaroa, titia kentzetik 7 urtera arte luzatzen zen aldia izango litzateke. Tarte honetan oraindik umeek helduen babeseta eta beharra izango zuten. Umea izateko beste irizpidea psikologikoa da, erregistro arkeologikoan zantzurik utziko ez duena, baina interesgarria hainbat aztarna interpretatzerakoan. Horrela Piaget-ek (1991) 3 etapa desberdintzen ditu: 0tik 2 urte bitartekoa, 2tik 7ra -1go haurtzaroa- eta 7tik 12ra -2. haurtzaroa-. Lan honetan, 0tik 12 urte bitartekoak umetzat hartuko dira.

Dena den, hildako baten adina kalkulatzeko arazoak sor daitezke kasu bereziak egon daitezkeelako, eta erreferentzia gisa hartu behar dira. Normalean, hezurren tamaina, kartilagoen kaltzifikazioa, hortzak, eta abar hartzen dira kontuan.

Historiaurreko ikerketetan, umeak arrazoi desberdinengatik ahaztu dira, adibidez ideologiagatik edo taldeen kide pasiboak bezala kontsideratzen direlako (Herrero, 2015: 69). Egun, aztarnak ugaritzen doazen neurrian gero eta gehiago ikertzen dira, eta teknika berrien bitartez informazio aberatsagoa eskura daiteke. Umeek paper garrantzitsua izango zuten gizartean eta hileta munduan, taldearen parte zirelako eta honen etorkizuna. Euren aztarnak gure gizarteetan bezala (aparteko objektuak dituzte, parte hartze aktiboa taldean...) garaiko erregistro arkeologikoan egon daitezke (Herrero, 2013b: 1020).

Ehiztari-biltzaileen gizarteetan, bizitzeak zailtasun handiak zituenez (gaixotasunak, higieze eza, etab.) umeen hilkortasun tasa handia zen. Beraz, heriotzaren kausak, desberdinak izan zitezkeen, batetik, endogenoak (jaiotzaren aurreko baldintzekin erlaxionatuta), eta bestetik, exogenoak (jaio ondorengoak) (Herrero, 2013a: 78-79). Aztertu diren denak arrazoi naturalengatik hildakoak dira, ez dago indarkeria arrastorik ezta hil aurreko erritual berezien zantzurik ere.

## 2. Ehorzketak identifikatzeko eztabaidak

Aztarna arkeologiko baten aurrean gaudenean interpretazio anitz egin daiteke, eta giza hezurak direnean hainbat muga eta galderekin topa gaitzke. Hezurren kontserbazioa oso partziala izan ohi da, baina, egoera hori denboran zehar emandako prozesu baten ondorio da ala gizakiaren eraginez gertatu da –adibidez, erlikiekin gertatzen den moduan–?. Gorpu bat baino gehiago baldin badago, nahita egindako metaketa bat da ala prozesu natural baten ondorio? Eta hobirik ez badago, hilobia da? Gorputzaren inguruan dauden mota ezberdineko aztarnak zer dira? Denak hatuak?

Ehorzketaren definizioa ez da erraza, jarrera eta erritual konplexuak eta aldakorrak eman direlako. Ehorzteak ez du zertan “lurperatzea” inplikitzen, askotan, bigarren mailako hilobiratzeak dira (Menéndez *et alii*, 1997: 210). Gainera, hildako bat ehorztean erregistro arkeologikoan dokumentatuko ez diren ekintza desberdinak egingo ziren, hauetako asko hilobitik urrun egin zitezkeelako edo immaterialak zirelako (kantuak, dantzak...). Aldiz, beste portaera batzuk erregistro hauetan nabariak izan daitezke: sua piztea, hobia edo egiturak egitea (tumulu, zista)...Dena den, nahiz eta zantzu batzuk ikertu, gizarte hauen pentsaerak heriotzaren aurrean eskuragaitzak dira (Andrés, 2003: 14).

Paleolitoak aurrera egiten duen heinean ehorzketa kopurua handitzen doa, baina umerenak gutxi dira. Hauen hilkortasun tasa handia izango zenez, erregistro arkeologikoan presentzia handiagoa izan behar zuten. Huts hau, kontserbazio arazoa izan daiteke, umeen hezurak helduenak baino askoz meheagoak eta hauskorragoak direlako, eta aire zabalean kontserbatzea oso zaila delako (Armendáriz, 1994: 165).

Kasuaren arabera hezurak isolatuak edo metaketa moduan agertu daitezke. Batzuetan, karga sinboliko handia daukaten aztarnategi batzuetako hezur isolatu gutxi batzuk (baraila...) ehorzketa moduan sailkatu ziren, baina horiek azken urteetan zalantzan jarri dira ebidentzia nahikorik ez dagoelako. Hala ere, Goi Paleolitotik aurrera ez dago bazterterik erlikiak edo tratu berezia izan duten elementuak ez zirenik, adibidez Isturitzen dagoen plater moduko gazezur musarratua (Mujika, 2007-2008: 560).

Hatuaren izaerari buruz ikertzaileek iritzi desberdinak dituzte, nahita utzitakoak izan zitezkeelako edo ez. Batzuk (zintzilikarioak), hildakoak egunero soinean erabiltzen zituenak izan zitezkeen, edo aurretik sedimentuan (fauna hezurak) bertan egon. Hatuaren objektuak eskaintzak baldin baziren, hauek, hildakoa gainontzeko kideetatik desberdintzeko (*status* bereziagatik) jarri ahal izango ziren (Wunn, 2012: 211) eta

errepikatu egingo lirateke antzeko ezaugarriak dituzten hilobietan. Gainera, umeek jabetzarik ez zuten, bertan agertutako objektuak, helduek jarritakoak izan ahal ziren, “hurrengo bizitzan” *status* ona edukitzeko. Faunari dagokionez, aztarna hauek askotan ehorzketen inguruan agertzen dira eta era ezberdinerara interpretatu dira: errituen ondorioz utzitakoak izan zitezkeen edo taldearen biziraupenerako beharrezkoak zirenez baliteke kontsumo-hondarrak izatea, edo bertan, naturalki hildakoak izatea ere. Mesolitotik aurrera, hilobian eta gorpuaren ondoan lotura anatomikoan agertutako faunak, hatu izaera argia dauka.

Goi Paleolitotik aurrera okrearen presentzia orokortzen da. May-en ustez (1986), Paleolitoan ez da okrearen erabilera erritu moduan frogatu, beste funtzio batzuk ere izan ahal zituelako (gorputza babestu, etab.) Dena den, gaur egun badakigu okreak gorputzen usteltzea ez duela ekiditen, baina hilobietan funtzio bat zuela eta erabilpena kontzientea zela argi dago (adibidez, ohikoa da trikuharrietan).

Aipatutako faktoreak kontuan hartuta, askotan nahiko zantzurik ez dago ehorzketa baten aurrean gaudela esateko (Armendáriz, 1994: 163).

### 3. Ehorzketa-errituen inguruko hipotesien historia.

Denboran zehar ikuspuntu desberdinak garatu dira. Lehenengo aurkikuntza ospetsuenak Frantzia XIX. eta XX. mendeen trantsizioan gertatu ziren eta eztabaidak gogorrak izan ziren. Garai honetan Estatua eta Elizaren arteko liskarrak arkeologian ere islatu ziren apaizen jardura garrantzitsua zelako. Ikertzaile batzuen ustez bazirudien ehorzketak ideologikoki erabili nahi zituztela, azken helburua sentimendu erlijiosoa gizakiaren baitan zegoela nahi zutelako frogatu. Ikerlarien artean eztabaida sutsuak egon ziren eta Mortilletek, eta beste batzuk ez zituzten Neolitoaren aurreko ehorzketak onartzen, aurkikuntza asko istripu gisa interpretatzen zituzten. Arkeologia zientzia hasi berria zen, beraz, metodologia egoki baten falta sumatzen da (Carbonell *et alii*, 2005: 528).

XX. mendearen 60ko hamarkadan, Arkeologia Berriaren sorrerarekin, Heriotzaren Arkeologia garatzen hasi zen eta gai berriak sortu ziren: testuinguruen ikerketa, tipologia, hatua eta hierarkizazio edo antolaketa soziala, etab. Hurrengo hamarkadan erregistro arkeologikoan sakontzen hasiko dira, umeen hilobiak aztertuz, beraien papera gizartean eraikitzeko (Lombo *et alii*, 2013: 42). 80ko hamarkadan ordea, aurrekoetako arkeologia kritikatu Arkeologia Postprozesuala sortu zen, eta honen arabera, hatuaren bidez ezin zen antolaketa soziala ezagutu (Herrero, 2015: 189). Hala ere, hatua aberatsa baldin bada,

ikuspuntu desberdinekin aztertu daiteke. Materialismo historikoan, prestigio eta estatus nozioak baztertzen dira, subjektiboak eta arkeologikoki konproba ezinak direlako. Beste perspektiben arabera, gizarte tradizionaletan hatuaren presentziak erlazio sozialekin zerikusia izango zuen gizabanako bakoitzaren irudia eraikitzeke eta umeak zirenetik izango zuten. Hauentzat Paleolitoko gizartetik hierarkien existentzia hau badago eta honen islada, umeek jasotako hatuak izango ziren (Vanhaeren, D'Errico, 2001: 48-51).

Gaur egun, primatologiatik abiatuta, ehorzketen eta hiletan sorreraren inguruan, sinpleenetatik konplexuenera, portaeren sailkapena azaltzen du (Pettit 2011: 8-9):

1. Sinpleena morbiditatea izango zen, heriotzarekiko kezkarik edo ulermenik ez zuten izango.
2. Kanibalismoa, honek errituala edo elikatzeko helburua izango zuen.
3. Nahita eginiko metaketak haitzulo eta harpeetan da, eta *Homo neanderthalensis* gizakiarekin emango da. Aire zabalean ere egin zitezkeen, baina gaur egun desagertuta egongo lirake. Arrazoi metafisikoengatik edo funtzionalengatik (gorpuak harrapariengandik babesteko) sortutako praktika izango litzake.
4. Ehorzketa formal honetan, gorpua nahita prestatutako leku batean utziko da. Hau, lehenengo mailako hilobiratzea izan daiteke, edo bigarren mailakoa.
5. Azkenik, portaera konplexuenean, hildakoarekin erlazionatuta, balore sinbolikoa duten elementu erritualak eta objektuak agertuko lirake.

Honi jarraituz, pentsa dezakegu, ehorzketak pixkanaka garatuko direla, lehenengo hominidoetatik hildakoarekiko arreta sumatzen delako, beranduago, pentsamendu sinbolikoa sortuz.

#### 4. Ehiztari-biltzaileen umeen ehorzketak

Talde hauek, ehiztari-biltzaileak nomadak ziren, biziraupen estrategia anitzak zituzten: bilketa, ehiza, etab. Nomadak ziren, inguruaren erreferentziak zituzten, baina mugikortasunaren ondorioz zaila da euren ehorzketak kontserbatzea edo aurkitzea. Baina aurkitzerakoan bi ezaugarri kontuan hartu behar dira: batetik, lurraldearen arabera desberdintasunak daudela, eta garaiak aurrera egin ahala horren froga eta aztarnak gehiago ditugula eta bestetik, ez dakigula gu ez garen beste giza espeziek heriotzaren kontzientzia noiztik zuten.



#### 4.1. Behe eta Erdi Paleolitoa

Iritzi ezberdinak daude garai hauetako giza hezurak aurkitzen direnean, ehorzketa gauzatu den ala ez erabakitzerakoan zalantza egon ohi da. D'Errico-k *Homo sapiens sapiens*aren aurretiko hileta-errituaren existentziaren inguruko eztabaida piztuta dagoela dio, gainontzeko espezieen gaitasun kognitiboa onartzea inplikatzeko (Villaverde, 2010: 18). Beraz, gauza bat da pentsamendu sinbolikoengatik nahita ehorztea, eta beste bat, afektuagatik edo beste faktore batzuegatik (animalien erasoak ekiditeko, desitxuratzeko prozesua ez ikusteko...). Ondoren ikusiko dugunez, Behe Paleolitoko Atapuercako *Gran Dolina*-n eta *Sima de los Huesos*-en umeen gorputzen tratamendua helduen bera izan zen.

*Gran Dolina* Europako Behe Pleistozenoko aztarnategi garrantzitsuenetariko da (Carbonell *et alii*, 2005: 455). TD6 edo *Estrato Aurora* deitutakoan, giza hezurak, harrizko industria eta fauna asko -*Ursus praeartcos*, *Panthera sp.*, *Vulpes sp.*- aurkitu da (Rodríguez, Lozano, 2002: 14; Rosas, 2012: 128). Analisi paleomagnetikoak Matuyama/Brunhes polaritate aldaketa baino zaharragoak direla dio (>780.000 urte) (Parés, Pérez, 1995: 830). Garai honetako, giza hezur gutxi ezagutzen da, beraz, *Gran Dolina*ko multzoa ez-ohikoa da: hamaika gizabanako horietatik, lau 5 urte baino gutxiagokoak dira, bi 5 eta 9 urte artekoak, hiru 10 eta 15 urte artekoak eta bi heldu. Giza fosil hauek *Homo antecessor*renak dira eta ikerketa tafonomikoaren arabera, hezurak ez ziren bertara heldu naturaren eraginagatik. Gainera, kanibalismo edo antropofagia zantzu zaharrenak dira (Carbonell *et alii* 2005: 435).

*Sima de los Huesos* leizea, 8x4 m-ko barrunbe bat da (Carbonell, *et alii*: 2005: 500). Ez-ohiko aztarnategi honetan, estratigrafikoki *Ursus deningeri* hartz-hezur metaketaren behe aldean 6500 giza hezur, *Homo heidelbergensis* espezieko adin eta sexu desberdineko 28 gizabanakorenak, berreskuratu ziren (Rosas, 2012: 130). Azkeneko datazioen arabera, gutxienez ~430.000 BP urte dituzte (Arsuaga *et alii*, 2014: 1361). Hildakoen artean nabarmentzekoa da 2 urte baino gutxiagoko umeen aztarnen falta (Bermúdez de Castro, 1995: 267) eta lehenengo haurtzaroko hildako bakar bat dagoela, 4-6 urte arteko bat, eta 10-11 urteko beste bat.

Giza hezur multzoan zegoen objektu bakarra kuartzita gorrian egindako *Excalibur* aurpegibikoa zen. Azken hau, eskaintza moduan eta jarrera sinboliko-erritual zaharrenaren moduan interpretatzea proposatu da (Rosas, 2012: 130), eta berari egindako ikerketa bati esker erabili izana baztertu da (Carbonell, Mosquera, 2006: 157-158). Hala ere, objektu sinple moduan hartzen duen ikerlaririk ere bada (Pettit, 2011: 54).

Metaketa horrek nahita egindakoa dirudi eta ondorioz, modu honetan jokatu zuten lehenengo hominidoak izan zitezkeen (Rodríguez, Lozano, 2002: 26). Aldi berean, bizileku moduan ezin da interpretatu aztarna antropikorik ez dagoelako (fauna hautsita, lanketa-hondakinak...). Dena den, beste ikertzaile batzuen ustez, erritual konplexua dela esateko frogak falta dira eta gorputzak sartzeko sarrera zaileko lekua denez hezurtegi bat izatea oso zaila izango zen (Bernaldo de Quirós, 1995: 36).

Erdi Paleolitoan zantzu gehiago ezagutzen dira, eta kasu berezi batzuk aztertuko dira: *El Sidrón* (Asturias) eta Dordoiniako (Frantzia) *La Ferrassie* eta *Le Moustier*.

*Homo neanderthalensis* izaeraren inguruan hipotesi ugari, batzuk kontrajarriak, zabaldu dira, eta sarritan aurreiritzien menpe egon da. Azken bolada honetan aldiz, hauek, berrikusten ari dira DNA azterketan oinarrituz (Menéndez, 2014: 271-272). Lehenengo giza aztarnen aurkikuntzak egin zirenetik eztabaida piztu zen. Ikerlari gehienek nahitakotasun bat zegoela eta hilobiak kontsideratu daitezken kasu batzuk badaudela diote, baina guztietan ez daude ados, beraz, portaera hau ezin dugu jarrera orokor moduan hartu (Díez, 2009: 31). Gargettek (1989) berriz, ukatu egiten du. Ondorioz, hilobiak zeudela esan daiteke, baina, zalantzarik gabeko frogak falta dira eta horregatik gizaki hauek sinesmen erlijiosoak eta erritual konplexuak izango zituzten zalantzak ditugu (May, 1986: 67), hots, ulermen konplexuen zantzu sakonik eta eztabaidatu ezinezkorik ez dago. Honen inguruan, erlijiotasunaren ideia defendatzen duten ikertzaileak ere egon dira (Leroi-Gourhan, 1994), baina, testuinguru ez oso argian aurkitutako aztarna arkeologiko gutxi batzuetatik ondorio hauek ateratzea oso arriskutsua izango litzateke.

Erregistroan aurkitzen diren kasu gehienak haitzuloetakoak eta harpeetakoak dira, eta aire zabalekoetan berriz ez da nahitakotasunik nabarmentzen, eragile naturalen eraginez jatorrizko testuingurua galdu dutelako (Wunn, 2012: 124). Ikerlari batzuk diotenez, zonalde batzuetan neandertalen hilobiak falta direnez, hildakoaren tratamenduan lurraldearen arabera desberdintasunak egongo lirateke (Carbonell *et alii*, 2005: 529). Beste batzuk aldiz (Schmitz-ek eta Thissen-ek), neandertalek haitzuloak behin eta berriz erabiliko zituztenez, bertan hilko zirela eta hilobiratuko zituztela pentsatzen dute. Gorputzak orokorrean albo batera etzanda edo tolestuta daude, aldiz, luzatutako posizioak ez daukate ia presentziarik (Carbonell *et alii*, 2005: 531).

Sarreraren aipatu den moduan, neandertalen hilobietako hatua oso eztabaidatua da. Chase-n eta Dibble-n (1987) ustez, harrizko industriaz eta faunaz osatutako multzo

gehienak, gorputza lurperatzerakoan ustekabeen sartutako objektuak izango ziren. Hauetan, Goi Paleolitoan aurkitzen den moduan okrerik ez da agertu.

*El Sidrón* haitzuloan, 1994an, beheko sarreratik 220 m-tara, bi erdi-baraila jaso ziren *Galería del Osario*-n, eta 13 indusketa kanpainen ondoren gorpu gehiago (Fortea *et alii*, 2003: 159). Jatorriz, gorputzak haitzuloaren beste maila batean zeuden, baina erorketa baten ondorioz, hara ailegatu ziren, bigarren maila batean geratuz. Hauen kronologia duela 60.000 eta 40.000 urte bitartean kokatu beharko litzake (Rosas *et alii*, 2005: 70). 13 gizabanako aurkitu ziren eta hauetatik, 3 nerabe (2 mutil eta neska bat), 2 mutil gazte eta beste bat umeagoa aurkitu ziren, gainontzekoak helduak ziren (Rosas *et alii*, 2015: 77). ADN ikerketek diotenez talde familiar berekoak ziren (Rosas, 2012: 141) eta gizonen arteko harremanak nabariak dira, emakumeak ordea ez ziren senitarte berekoak, beraz, talde hauek patrilokalak zirela esan dezakegu (Rosas *et alii*, 2015: 84; De la Rasilla, Santamaría, 2011-2012: 46). Hauek, kanibalismo zantzuak dituzte eta praktika honen inguruko eztabaida piztuta dago, hala ere, neandertalek hildakoen gorpuak manipulatzeko zituztela badakigu (ez duenak zertan osagarri erritualik izan behar) (Díez, 2009: 27).

Bertan aurkitutako faunari dagokionez, haragijale oso gutxi zegoen eta belarjaleen presentzia handiagoa (orein, bobido etb.). Industriari dagokionez suharrizko eta kuartzitazko Moustier aldiko 400 pieza aurkitu dira eta deigarrienak dira: berezko bizkarra duten 2 aizto, 9 karraskagailu, aurpegibiko 1, levallois ijelki 1 eta 2 punta (Fortea *et alii*, 2003: 172).

Azken datuen arabera, 2550 neandertal hezur baino gehiago berreskuratu dira, baina ez dira ehorzketa kontsideratzen, aldiz, naturaren eraginez gertatutako metaketa bat. Hezurretan mozketa markak daude, gorpuak kontsumituko zituztelako, beraz, gorputzen alboan agertu den harrizko tresneria praktika hauekin zuzenki erlazionatu daitekeela uste da (De la Rasilla, Santamaría, 2011-2012: 51).

*La Ferrassie* harpea moustier garaitik Gravette aldira arte okupatuta egon zen bizileku bat izan zen.<sup>1</sup> Lehenengo aurkitu ziren giza hezurak (*La Ferrassie 1* eta *2*) helduena ziren, eta ondoren beste 6 gorpu gehiago jaso ziren (Carbonell *et alii*, 2005: 516; Wunn, 2012: 120). Azken hauetatik bereiziko ditugu hobi batean sartuta 10 urteko ume bat (*La Ferrassie 3*), eta hobi txikietan zeuden jaioberri bat eta fetu bat (*La Ferrassie 4* eta

---

<sup>1</sup> <http://www.hominides.com/html/lieux/ferrassie-abri.php> (kontsultatuta: 2016ko maiatzaren 9an, 19:00)

4a)<sup>2</sup>. 1920an, tumulu baten azpian zegoen hobi obalatu txiki batean 7 hilabeteko fetua aurkitu zen (*La Ferrassie 5*) eta hilobiaren gainean bi karraskagailu eta punta bat (Heim, 1982). 1921ean berriz, kareharrizko lauzeekin mugatutako berezko hobi batean (*La Ferrassie 6*) garezurra gorputzetik bananduta zeukan 3-5 urteko ume bat agertu zen. 60-70. hamarkadetan Delporte-k eta Heim-ek beste ume baten gorputza aurkitu zuten, animalien hezurrekin eta suharri batzuekin, baina nahastuta zeudenez ez zuten ondoriorik atera (Wunn, 2012: 120). Neandertal hauek, kronoestratigrafiaren arabera 75.000-60.000 urte BP dituzte<sup>3</sup>. May-k (1986: 11-14) gorputzaren posizioa eta hildakoen egoera ikusita hilobiratzea nahita egin ahal zela eta burua gorputzetik metro batera zegoenez, erritual berezi bat izan daitekeela dio. Dena den, nahiz eta burua bananduta egon, mozte arrastorik ez dagoenez, burua ebaki zioten hipotesia baztertu egin behar da.

Laburtzeko, aztarnategi honetan neandertalen gorputz guztiak (2 heldu eta 5 ume) ekialde-mendebalde posizioan, eta besoak eta hankak tolestuta zituztela agertu ziren. Aztarnak ikusita familia bereko kideen hilobiratze bat izan zitekeen (Olària, 2008: 394), baina *El Sidrón*-en egin diren DNA analisien falta dago.

Aztarnategi honen inguruan hipotesi desberdinak plazaratu dira. Müller-Karpe-k (1995) “eskaintzak” umeetik hurbil daudenez, hauentzat utzitako opariak izan zitezkeela dio. Maringerren ustez berriz (1972), gorputzen posizioa ikusita, oinak eta eskuak lotuta izango zituztela dio, geroko bizitzatik itzul zitezkeenaren beldur zirelako. Aztarna arkeologiko hauen aurrean ondorio magiko-erlijiosoak atera ahal zituztela pentsatu zuten, baina gaur egun, hipotesi hauek baztertu dira. Ikuspegi orekatuena May-rena da (1986: 11-35), honek, hilobi moduan identifikatu daitezkeen frogak falta direla dio, baina, dokumentatuta dauden kasu gutxi batzuk nahita egindako depositu baten moduan ulertu daitezkeela.

*Le Moustier* aztarnategia bi harpek osatzen dute. Lehenengo indusketan moustier aldiko industria aurkitu zuten. 1907tik aurrera behekoan jarraitu zuten, eta 1910an neandertalen giza hezurak zituen hobi bat indusi zuten, eta 1996an ikerketa gehiago egin ziren<sup>4</sup>. *Le Moustier* 1-ean,  $40.300 \pm 2600$  BP-n dago datatuta, 15 urteko gazte bat eta 6 urteko ume bate aurkitu ziren eta *Le Moustier* 2-n,  $42600 \pm 3700$  BP-n datatua (Rivera, 2010: 49), 4-9 hilabete arteko jaioberri baten gorputza hobi batean (Maureille, 2002: 2-3;

---

<sup>2</sup> *Ibidem*

<sup>3</sup> *Ibidem*

<sup>4</sup> <http://hominides.com/html/lieux/le-moustier-abris.php> (kontsultatuta: 2016ko maiatzaren 6an, 13:30).

May, 1986: 14). Hatuari buruz ez da aipamenik egiten, nahiz eta agertutako harrizko industria (karraskagailuak, etab.) eta fauna (uro, bisonte, etab.) eskaintza moduan uler daitezkeen, May-k (1986: 14) dio neandertalen bizileku bat izanda sedimentuan zeuden jan hondarrak izan zitezkeela.

Maringerren (1972) ustez neandertal gizakiak heriotza ondorengo bizitza batean sinesten zuen, horregatik, aztarnategi honetan gorputzak lo egiteko posizioan aurkitzen direla dio, lo egitea trantsizio egoera bat kontsideratzen zelako, ondoren, beste mundu batean esnatzeko. Hipotesi hauek, egun, ikerlari gehienak arbuiatu dituzte, *La Ferrassie* aztarnategiaren kasuan azaldu den moduan, konprobatu ezinak direlako.

Laburtuz, Atapuercako mendizerrako bi aztarnategietan: helduak eta umeak elkarrekin agertzen dira metatuta eta badirudi bereizketarik ez dutela egin. Hildakoek kanibalismo errituala edo elikatzeko helburuarekin egindako ebaketa arrastoak dituzte. Behe Paleolitoan aipatutakoen jarrerren jarraipena dirudi *El Sidrón*, baina beste kasu batzuetan (*Le Moustier*, *La Ferrassie*, etab.) umeak eta helduak indibidualizatuta agertzen dira, eta ehorzterakoan ez da desberdintasunak nabaritzen. Indusketa zaharrak direnez ez dago beti argi hilobiratuak izan direnik, eta eurekin agertzen diren industriak eta hezurak hatu izaera dutenik.

#### 4.2 Goi Paleolitoa

Goi Paleolitoan *Homo neanderthalensis* espeziea desagertu zen eta aztarnak *Homo sapiens sapiens*-enak dira. Mithen-ek (1998: 191) gizarte hauen erlijio ideologiak ezin ditugula berreraiki dio, baina aurreko garaiekin konparatuta aurrerapenak nabaritzen dira teknologian, artean eta noski, ehorzketetan. Hemen aukeratu ditugun adibideak informazio interesgarria eskaintzen digute: *Lagar Velho* (Portugal), *Sungir* (Errusia), *Wachtberg* (Austria) eta *La Madeleine* (Frantzia).

XX. mendearen erdialdera arte, garai hauetako gizakien hilobiratzeak ezinezkotzat hartzen ziren, botatako hondakinak edo istriputzat hartzen ziren (Wunn, 2012: 181), gaur egungo gizakiaren eta ordukoaren arteko tarte kulturala oso handia zela ziotelako. Mendearen bigarren erdi alditik aurrera hilobi gehiago aurkitu ziren (hobiekin, gorputzen posizio bitxiekin, okrearekin, hatuarekin, etab.), eta horren ondorioz gizaki hauen hilobiratzeko gaitasuna onartzen da. Honi lotuta askotan, “geroko bizitza” baten existentzia eta sentimendu erlijioso bat zegoela ere esan izan da (Wunn, 2012: 182).

Nahitakotasunezko ehorzketa hauetan hildakoen tratamendu berezia sumatzen da apaingarrien presentzia dagoelako (hildakoak bere soinean eramango zituen), okrea, arte higigarria, etab. (Carbonell *et alii*, 2005: 552). Baina eztabaidagarriak diren beste elementu batzuk agertzen dira baita, adibidez: industria eta fauna. Azken bi hauek sedimentuan nahastuta edo kontsumo hondarrak izan daitezke.

Aurreko garaietan baino, hilobi gehiago ezagutzen da (Wunn, 2012: 181), dena den, espazioan eta denboran ez dira homogeneouski banatzen (Quéchon, 1976: 728), eta batzuk haitzuloetan egingo ziren eta beste batzuk, aldiz, aire zabalean (Bernaldo de Quirós, 1995: 42). Gorputzak banan-banan lurperatzen ziren, baina salbuespenak daude. Garai honetan bigarren mailako hilobiratzeak zeudela dirudi eta hezurren antolaketa eta markak ikusita nahita egindako manipulazioak ere bai (Wunn, 2012: 190-191). Beste autore batzuk (Orschiedt-ek) diote lurperatu aurretik hildakoak prestatu egingo zituztela, heriotzaren ondorengo bizitzarako, baina, ezin dugu jakin. Prestaketa hauek garrantzia daukate baina ez dira jarrera orokor moduan ulertu behar, ez direlako errepikatzen, erregulartasunik ez dagoelako (Wunn, 2012: 192).

Hatuari begira, ikertzaile batzuk, garaien arteko desberdintasunak ez dituzte erlazionatzen hildakoen tratu bereziekin, bizimoduarekin baizik. Hau da, garaien artean kultura materialean aldaketak daudenez, objektu berri hauek hilobietan ere protagonismoa edukiko zuten, beraz, bizimoduaren isla izan zitezkeen (Bernaldo de Quirós, 1995: 42). Gorputzarekin batera, orokorrean, horniduratzat har daitezkeen janari aztarnarik ez da aurkitzen eta hatuan ez da sexuen arteko desberdintasunik igartzen. Gainera, hilobietan aurkitzen dugun tresneria beraiek egunero erabiliko zutena da. Garai honetan okre aztarnak ugaritzen dira, bai sedimentuetan bai giza hezurretan. Maringer-ek (1972) eta Eliade-k (1999), okrea, bizitza sinbolizatzen zuen odol erritual baterako erabiliko zutela diote. Aldiz, May-k (1986: 203-205) teoria arrazionalagoa du: hildakoaren inguruan aurkitzen den kolore gorria ez zen beti okrea izango, aldiz, beste prozesu kimiko baten ondorio izan daiteke, eta analisi kimiko fidagarriak egitea komeniko litzake.

Beraz, ezagutzen den datu objektibo bakarra hildakoak, batzuetan, alboan edo soinean objektuekin lurperatzen zituztela. Honek eta nahita egindako hilobiratzeak ez du esan nahi Goi Paleolitoan erlijio pentsaera garatuak zituztenik, ordea, hildakoarekiko lotura estua adieraziko lukete. Jarrera hauek baldin bazeuden ere arkeologikoki ezin dira berreraiki (Wunn, 2012: 195-197).

Ondoren azalduko ditugu ehorzketa ezagunetako batzuk.

*Lagar Velho* harpean (Portugal), Gravette aldiko mailan (25.000-24.500 BP) (Aura, 2010: 34), ikerlariak okrez hautseztatutako hezurak eta sedimentua aurkitu zuten, agian, hildakoa oihal batekin estali zutelako (Duarte *et alii*, 1999: 7604; Pérez, 2007: 7-8). Harpearen hormaren kontra, hobi batean zeuden hezurak, 4-5 urteko ume batenak ziren. Buruz gora zegoen, ekialdera begira, bere ezkerreko albo labarrera eta bere oinak mendebaldera zituela. Besoak gorputzean zehar luzatuta zituen eta eskuineko eskua albo horretako aldakan jarrita. Hankak pixka bat tolestuta zituen eta oinak (gurutzatuak zeudenak) hankak baino altuago, hots, garezurra eta oinak altura berean jarrita zeuden eta aldakak hobiaren zati sakonagoan baina pelbisa posizio horizontalean zegoen (Zilhao, 2005: 232). Garezurraren zati isolatu batzuk besterik ez dira aurkitu baina Zilhao-k eta Trinkaus-ek (2002: 11) gizabanako hau neandertalen eta GAM-en hibridazio bat izan zitekeela diote, bi espezieen ezaugarriak antzematen direlako, baina interpretazio hau eztabaidatua izan da, neandertalen ageriko ezaugarriak ez direlako asko nabaritzen (Rosas, 2012: 148).

Bi oreinen betortz hondar zulatu eta bere zerbikaleko orno baten alboan *Littorina obtusata* maskor zulatu bat aurkitu ziren. Bere hanken azpian *Pinus sylvestris* espezieko ikatzak, agian, gorputza bertan utzi aurretik espezie horretako adar bat erre zutelako (Zilhao, 2005: 233). Material hauetaz aparte, hilobiaren bi alboetan oreinen bi pelbis eta eskuineko tibiaren alboan, lotura anatomikoan unxi txiki baten hezur batzuk zeuden, baina ez industriaririk. Aurkitzaileen ustez, eskaintza moduan ulertu daitezke, baina beste aukera bat, hobia irekitzeko tresna bezala erabili izana izan daiteke (Arias, 2014: 52).

Hemen, ume txikia bakarrik dago eta horregatik, Gravette aldiko hilobietan ikusten diren desberdintasunak hildakoen adinaren arabekoak zirela diote Zilhao-k eta Trinkaus-ek (2002), agian, adin konkretu batean onarpen soziala lortzen zutelako.

*Sungir* (Errusia) aire zabaleko aztarnategiko Gravette mailan, 28000-26000 BP-n datatua (Carbonell *et alii*, 2005: 552), eta data berriei esker 38000-34000 urte BP tartean datatua (Nawalade-Chavan *et alii*, 2014), ehorzketen zantzuak (heldu bat eta beste baten femurra, eta ume hilobi bikoitza) aurkitu ziren. Hilobi batean buruak bata bestearen kontra zeuzkaten bi umeen gorputzak, 12-13 urteko neska bat eta 8-9ko mutikoa, zeuden. Neskatiaren hatua zortzi xabalinaz, bi sastakaiz, zulatutako bi makilaz, bolizko 1,66 m-ko lantza batez eta bere bularrean zegoen bolizko mamut baten irudixoz osatuta zegoen.

Gainera, 4900 bolizko koilare ale eta eskumuturrekoak eta eraztunak zituen. Guzti honetaz aparte, lepotik hurbil, eztenak (orratzak) eta gai geometrikoz apaindutako diskoak zeuden. Mutilarentzat aldiz, hiru xabalina, sastakai bat eta bolizko 2,42 m-ko lantza bat eta bularrean zaldi iruditxo bat zeuden utzita. Gainera, ipar azeriaren 250 hortzez osatutako gerriko berezi bat zeukan (Díez, 2009: 214). Bi gorpuek duten boli kopurua ikusita badirudi euren jantziak lehengai horretan egindako aleekin apainduta izango zirela (Bernaldo de Quirós, 1995: 39). Batzuek bolizko estatua txiki hauek hildakoaren zinginarriak izan zitezkeela diote (Wunn, 2012: 192).

Helduen eta umeen hilobiak aurkitu ziren, baina benetan deigarriena hatuak ziren. Objektuak ikusita pentsa dezakegu esparru geografiko honetan hierarkia soziala eta sexuen arteko banaketa egongo zela. Aldi berean, bertan dagoen okrearen presentzia eta bere disposizioa funtzio sinbolikoekin erlazionatuta egon daiteke. Agertutako objektu baliotsuak ikusita eskaintzak zirela pentsa daiteke eta umeen papera garrantzitsua izango zela gizarte hauetan (Bernaldo de Quirós, 1995: 39), pentsamendu sinbolikoa daukatela eta hildakoaren existentziaren jarraipen bat egongo zela (Mithen-ek, 1998: 189), horren ondorioz, objektu hauen beharra izango zuten (Wunn, 2012: 193). Dena den, inguruan ez da antzeko kasurik aurkitu, beraz, kasu hau salbuespen moduan ulertu dugunez, ezin ditugu orokortasunak azaldu.

Azken urteotan aurkikuntza berria egin da *Wachtberg* aztarnategian, Gravette aldiko mailan (26.580±160 BP) (Händel *et alii*, 2008: 96; Einwögerer *et alii*, 2008: 17). 2005 eta 2006ean, posizio periferikoan, 3 umeen ehorzketak aurkitu ziren. Hobi txiki batean 9-10 hilabeteko bikiak eta mamut baten ebakortza zeuden, azken honek sostengatzen zuelarik estalki modura horizontalki jarrita zegoen mamut heldu baten eskapula. Biak okre gorritz hautseztatuak zeuden, aurpegiak ekialdera zituzten eta pelbisak mendebaldera. Inguruan 35 bolizko ale aurkitu ziren, hildakoaren jabetza edo eskaintzak bezala interpretatu direnak (Händel *et alii*, 2008: 102). Bigarren ehorzketa, aurreko hilobitik 1,5 m iparraldera zegoen, estalkirik gabeko hobi bertikal batean, tolestuta eta burua hegoaldera jarrita zuela, okrez hautseztatuta, 0-3 hilabete arteko jaioberria zen. Honen muga ikusita, *Lagar Velho*-n bezala, bazirudien gorputza larru batekin estalita lagako zutela, agian lotuta aurkitu zen bolizko orratz batez.

Nahita egindako lurperaketak dira eta erritual batekin erlazionatuta egongo ziren (okre eta boli kantitatea ikusita) (Händel *et alii*, 2008: 104).



*La Madeleine* (Frantzia) harpean aurkitutako hilobia zuzenean lurrean indusita zegoen. Gainera, garezurra inguratuz egitura erdi biribil bat sortzen zuten hiru harri zeuden. Ume bat zen, 2-4 urte artekoa, *decubito lateral* posizioan, besoak gorputzean zehar eta hankak luzatuta zituen. Hatua itsas maskorrez (*Dentalium*, *Turritella*, *Cyclope*, *Neritina*) eta oreinen betortz hondarrez, etab. zegoen osatuta eta aleetako asko besoen, hanken artikulazioen eta buruaren inguruan zeuden. Gorputzaren posizioagatik eta aipatutako objektuak agertu diren eragatik nahita egindako lehen mailako hilobiratzea da. Gainera, maskor zulatuak ikusita, badakigu umearentzako aukeratu zirela, helduenak baino askoz txikiagoak zirelako. Gorputza AMS-z 10190±100 BP kronologian datatu zen, baina aurkikuntzak hobeto egokitzen dira Magdalen aldiko kulturara (Vanhaeren, D'Errico, 2001; Gambier, 1990: 22-24).

Aipatu direnaz aparte, beste aztarnategi batzuk daude, adibidez: *Lafaye* (Magdalen aldiko heldu bat, 3-4 urteko ume batekin), *Le Figuier* (3-4 urteko umea), *Cro-Magnon* (4 heldu, jaio aurretiko 2 ume eta jaioberri bat) beste batzuen artean.

Goi Paleolitoan umeen eta helduen ehorzketak aurreko garaioek baino erritu konplexuagoak (okrea, sua, iruditxoak, etab.) zituztela ikusten da, eta aldaketa badirudi espezie berriaren agerpenarekin lotuta dagoela. Ehorzketa kopurua txikia da eta umeen hilobietan egoera ezberdinak nabarmentzen dira (hatuak ez dira errepikatzen), eta honek zaildu egiten du gaian sakontzea

### 4.3. Epipaleolitoa eta Mesolitoa

Pleistozenoaren bukaerako eta Holozenoko aldaketa klimatikoek landaretzan eta faunan eragina izan zuten eta progresiboki baita ere gizakiaren bizimoduetan eta hiletakerrietan. Lehen aipatutako ehorzketa erak jarraitzen du, dena den, Mesolitoan sartu ahala, aurretik ematen ez den modu berri bat agertzen da: aire zabaleko hilerriak. Epipaleolitoan giza hezurren aurkikuntza ez da ugaria, baina badaude ehorzketak direnak (*J3*, *Los Azules*, *Aizpea*, *Molino de Gasparín*, etab.), eta baita hezur isolatuak ere (*Colomba*, *Cuartamentero*, *Mazaculo*, *Poza l'Egua*, etab.) (Arias, Álvarez-Fernández, 2004: 229; Sarasketa-Gartzia, 2015: 162).

#### 4.3.1. Banakako hilobiak

Gorpu bakarreko ehorzketen artean, Linatzeta koba (Gipuzkoa) dago. Hobirik eta haturik gabe, 6 hilabete baino gutxiagoko ume baten garezurra eta gorputza lotura anatomikoan baina zanpatuta, aurkitu zuten. Bere data 7315±35 BP-ko da (Tapia *et alii*,

2008: 127). *Los Canes* (Asturias) aztarnategian ere helduen artean ustezko ume baten hezurak zeuden.

Ume hezur isolatuen artean *Balmoriko* kasua ezagutzen da. Hemen, maila asturiarrean, 6-12 urte arteko ume baraila jaso zen (González, 1982: 178-179).

#### 4.3.2. Hilerriak

Hilerriei dagokionez, beste batzuen artean, Portugalen ditugu *Cabeço da Amoreira* eta *Moita do Sebastiao* eta Frantzia *Téviec* eta *Höedic*.

##### 4.3.2.1. Portugal

Portugal hegoaldean, Sado eta Muge bailaretan, Mesolito garaiko Europako hiletargune garrantzitsuenetakoak daude. Maskortegi hauetan, hareadun sedimentuan gorpuak uzten dira, orokorrean besoak luzatuta dauzkate, burua pixka bat altxatuta eta hankak tolestuta. Gehienetan hilobiak banakakoak dira, baina bikoitzak eta anizkunak ere ezagutzen dira (Mingo, 2012: 503; Arias, Álvarez-Fernández, 2004: 233). Multzo hauetan umeen gorpuak hiru aztarnategietan daude: *Cabeço da Amoreira* eta *Moita do Sebastiao* (Sarasketa-Gartzia, 2015: 161-162).

*Cabeço da Amoreira* aztarnategian, maila zaharrenak (39)  $7030\pm350$  BP kronologia dauka, eta aldiz, 3-4 mailak  $6050\pm300$  BP-koa (Pérez, 2012-2013: 242). Aurkitutako 34 gizabanakotik, CAM-00-01 hilobiak ume baten ehorzketa du, mendebalde-ekialde posizioan dago, ahoz gora, hankak bularraldera tolestuta eta oinak pelbisaren mailan jarrita (Jackes, Lubell, 2012: 72).

*Moita do Sebastiao* hilerrian oinarriko maila  $7350\pm350$  BP-n dago datatuta (Pérez, 2012-2013: 242). Garai honetako nekropoli esanguratsuenetarikoa da, eta 16 ume ehorzketa daude: 3 hirukoitzak, 4 bikoitzak eta gainontzekoak banakakoak (Olària, 2008: 449). Hauek, helduen nekropolitik 10 m-ra daude (Mingo, 2012: 503), gainera, 1-7 urte arteko umeak hobi obalatuetan sartuta daude. Agertutako objektu gehienak, maskor zulatuak dira (Arias, Álvarez-Fernández, 2004: 234).

##### 4.3.2.2. Britainia

*Téviec*, aire zabaleko nekropolia Morbihan-en dago. Gorpu zaharrena  $6740\pm60$  BP-n dago datatuta, aldiz, beste bat  $5680\pm50$  BP hots, azken hau, Neolitokoa izango litzateke (Schulting, 1999: 204). Bertan, helduak eta umeak tolestuta eta okrearekin agertzen dira eta gainera gehienek tumulua dute (Rozoy, 1978: 789):

1. Hiru ume batera ehortzita

2. Emakume bat eta bere besoetan 2 hilabeteko jaioberria duena
3. Gizon bat 2 urteko ume batekin, beste gizon bat eta ume bat
4. Bi emakume eta ume bat
5. Emakume eta fetu bat
6. Ume bat

Multzo hauetan hatu edo apaingarri moduan interpretatu daitezkeen elementu hauek daude: sastakaiak, eztenak edo orratzak, *Littorina obtusata* eta *Trivia Europea* zulatuak eta kuartzo zatiak (Rozoy, 1978: 790). Azken elementu honen presentzia deigarria da, aztertutako hilobien artean lehenengo aldiz agertzen direlako, gainera, Neolitotik aurrera hauek sarritan ageri dira trikuharrietan eta hilobi haitzuloetan. Baina aipatutako elementuaz gain, agian, su-erritual bat ere bazegoen. May-k (1986: 108-109) sutondoetan eta hilobietan aurkitutako eskaintza ohikoenak animalia desberdinen barailak direla dio.

*Höedic* Morbihan-eko aire zabaleko aztarnategiak,  $6575\pm 350$  BP kronologia dauka eta 9 hilobi aurkitu ziren, 14 hildakoekin. Hilobi anizkun honetan jaioberri 1, 5-6 hilabeteko umea eta 4-6 urteko hiru aurkitu ziren (Olària, 2008: 447). 10. hilobian ume baten aztarnak zeudela pentsatzen da, hala ere, hezurak ez dira kontserbatu. Leku hau berezia da, nekropoli moduan berrerabili zelako (Bosset, Valentin, 2013: 209).

Hilerri hauetan gizabanako hilobiak, bikoitzak eta anizkunak daude, eta hauekin sutondo erritualetan, orein hezurak eta basurde barailak. Gainera, hildakoen posizioak bereziak dira, *Téviéc*-en eskuak aldakaren gainean jarrita zeuzkatelako eta *Höedic*-en ordea, lepoaren beheko aldean edo sabelaren gainean. Hauek ikusita gorputzak lotuak egotearen hipotesia posible zela esan da, eta askotan hau hildakoarekiko beldurrarekin erlazionatzen zen, hala ere, May-en (1986) iritziz, hori ez zen horregatik egiten, arrazoi praktikoengatik baizik (zulo txikiagoa egiteko) (De León Azcárate, 2007: 44).

Aztertutako aztarnategiak, eta beste batzuk, Mesolitoan orokortzen hasten diren benetako hilerriak dira (Olària, 2003: 86). Hauek, mendeetan zehar ehorzteko berrerabili direnez, gizarte hauen eta euren lurraldearen arteko lotura estua frogatzen dute. Jarraikortasun honen arrazoia egon daiteke kostaldeak elikatzeko eskaintzen dituen baliabideen aberastasunean (agian, batez ere urtarokoak), honek bizimodu sedentarioagoa ahal egingo zuelako (Jochim, 2002: 138-139).

## 5. Ondorioak

Ondorio orokor batzuk ateratzea ez da erraza, hainbat faktorek baldintzatzen dutelako: adibide gutxi eta bereziak daude, eta banaketa espazial eta kronologiko homogeneousik ez dago. Gainera informazio eguneratu baten falta dago hainbat kasutan, indusketak zaharrak direlako eta gehienetan ikerketa eta metodologia berriak (DNA frogak, etab.) erabili ez direlako. Bestalde, batzuetan –batez ere, Behe eta Erdi Paleolitoko aztarnategietan–, aurreiritziek ikerketa objektibo bat egitea zailtzen dute eta interpretazioetan adostasun batera iristea. Hau kontuan izanda jarrera orokor gutxi batzuk ikus daitezke.

Behe Paleolitoan, *H. antecessor* eta *H. heidelbergensis* espeziekin ehorzketa moduan identifikatu daitekeen kasu argirik ez dago, dena den, aztertutako bi aztarnategietan (*Gran Dolina* eta *Sima de los Huesos*) hildakoen metaketak gauzatu ziren. Hauetan, umeek eta helduek tratu bera izan zuten (guztiak nahastuta, kanibalismo zantzuakin), baina garai hauetakoak ehorzketa moduan baieztatu ezinak dira. Kanibalismo zantzuak Erdi Paleolitoko *El Sidrón*en ere ikusi dira, beraz, *H. antecessor*, *H. heidelbergensis* eta *H. neanderthalensis* praktikatuko zuten. Atapuercakoak aztertuta, horiek ehorzketa moduan izendatzea ausartegia iruditzen zaigu, hortaz, soilik gorputzen metaketa moduan sailkatu ditugu. Hauek, gure aburuz, naturalki sortzea zaila izango zen, beraz, nahitakotasun bat adierazten dute, nahiz eta horren zergatia ez den ezagutzen.

Erdi Paleolitoan *H. neanderthalensis*-en ehorzketak deitu ahal diren adibideak daude, gorpuak hobietan sartuta daudelako, eta hauekin batera, autore batzuk hatu moduan defendatzen dituzten objektuak daudelako. Aztertutakoetatik *El Sidrón* argi ez dagoen bakarra da, eta antza du Behe Paleolitoko metaketekin. Berritasunei begira ehorzketa bikoitzak ere ezagutzen dira, adibidez *La Ferrassie*-n edo *Le Moustier*-en. Hauetan, aurreko garaian bezala, umeen eta helduen arteko hilobietan ez da desberdintasunik nabaritzen.

Goi Paleolitoan, gure espeziearekin, ehorzketetan berezitasun gehiago atzemango ditugu eta jarrerak argiagoak dira. Okrea, maskor eta hortz zulatuaren presentzia orokortzen da eta batzuetan hildakoekin objektu bitxiak (*Sungirko* bolizko iruditxoak, agian zinginarriak, etab.). Aztertu ditugu: *Lagar Velho*, *Sungir*, *Wachtberg* eta *La Madeleine*.

*Lagar Velhon*, gorpu bakarra agertu da, umea, maskor zulatuekin, untxi baten hezurrekin, okrearekin eta su aztarnekin. *Sungirren* hatuak eta izango zituzten arropak

ikusita *status* berezikoak zirela pentsa dezakegu, hala ere, aztertu ditugun bi umerenaz aparte helduak daude, bietan ondo kontserbatzen dira eta denak okrea dute. Gizon helduak, umeak bezala, “hatua” du (azerien betortzekin egindako txanoa, mutil txikiak bezala, azken honek gainera gerrikoa). Umeen hilobietan helduenean baino apaingarri gehiago dago, baina bestela antzeko tratua izan dute. *Wachtberg*-en bi ume hilobiratze ezagutzen dira eta berezia da, ez bakarrik batean bikiak daudelako, baizik eta mamut hezurak estalki moduan erabili zituztelako. Biak okrea daukate, eta *Lagar Velho*-ko kasuan bezala su aztarnak daude. *La Madeleine*n hilobia lurrian zuzenean indusita zegoen, itsas maskorrak (helduenak baino askoz txikiagoak) eta hortz zulatuak zeuden. Maskorren tamaina alde batera uzten baldin badugu (*Grotte des Enfants*-en ere hori bera nabaritzen da), helduekin ez dago desberdintasunik ehorzterakoan.

Ehorzketa hauetako bakoitzak bere nortasuna du, ez dira errepikatzen, helduekin gertatzen den bezala. Badirudi, ehorzketa erritualetan ez dagoela oraindik estandarizaziorik hatuetan edo kultura materialean, baina agian bai immaterialean. Hatutzat har daitezkeen objektuak kasu batzuetan daude. Gizarte horiek ume hilotzen aurrean izan zuten jarrera hunkigarriagatik trataera deigarria adierazten dute, baina eztabaidagarria izan daiteke arrazoa. Agian, jaiotzetik leinua bereizteko era izan zitekeen, edota *status*agatik, sozialki gizabanako horren ekintzagatik lortutako garrantzia taldean azpimarratzeko, baina, umeak merituengatik lortzea ezinezkoa dirudi, bizi laburra izan zutelako (Herrero, 2015: 190). Hala ere, hain bitxiak diren kasu gutxi ezagutzen direnez salbuespen moduan aztertu ditugu.

Epipaleolitik eta Mesolitik aurrera hilobi tipologia aldatzen doa. Gero eta aniztasun eta aldaera gehiago sortzen delako, ehorzketa moten dibertsifikazio bat dago. Aurretik ezagutzen ziren haitzuloetan egindako gizabanako baten edo gutxi batzuen ehorzketak oraindik jarraitzen dute, baina, aire zabaleko hilerrien agerpena ematen da. Hauetan normalean gorpuak banan-banan daude (batzuetan, binaka edo hirunaka) eta umeen presentzia nabaria da. Hauek kostaldean ugariagoak dira eta asko maskortegiak ziren. Hilerri hauek Neolitoan ere berrerabiliko dituzte, eta gainera, gizarte hauen sedentarizazio prozesuaren froga dira, lurraldearekiko atxikimendua ere adieraziko lukete. Bestalde, hilerriek eta hilobiek zuinen bat izango zuten agerian ondorengo belaunaldietakoei kokapena adierazteko. Berrerabilpen hauek Portugal eta Britaniako adibidez gain ikus daitezke beste eskualde batzuetan ere, Danimarkako *Boggebaken* hilerrian. Azken honetan, 17 hilobietan 22 hildako aurkitu ziren, eta bere nortasuna du.

Batean, emakume bat 8-9 hilabeteko fetu batekin zegoen. Emakumeak, oreinen eta basurdeen 190 hortz eta *Theodoxus fluviatilis* barraskiloen maskor zulatuak zeuzkan. Pelbisaren behe aldean ilara batean oreinen (50) eta elurorein (1) hortz zulatuak eta fetuak bere bularrean suharrizko ijelki bat zuen, gorputzaren behealdean hegazti hezur batzuk zeuden, eta, gorpu osoa beltzarga baten hegoan utzi zuten (Morales, 1985: 15-16).

Amaitzeko, Mesolitoko ehorzketa hauek jarraipena izan zuten Aitzin Neolitoan ere. Garai honetan aldaketa ekonomiko, ideologiko, etab. iritsi ziren, baina hilerri hauen presentzia ikus daiteke herrixken barnean (*Los Cascajos, Paternanbidea* –Nafarroa-, etab.), non gizabanako hilobiak dauden, edota bikoitzak edo hirukoitzak (García *et alii*, 2008: 137). Segida hori eskaintza batzuetan ere nabarmentzen da, nahiz eta geografikoki urruti egon, adibidez giza gorpuekin txakurrak hilobiratzean, Siberiako edo Suediako mesolitoan eta *Los Cascajos*-eko hilerrian.

## 6. Bibliografía

### **Andrés, M. T.**

2003 El concepto de la muerte y el ritual funerario en la prehistoria. *Cuadernos de Arqueología de la Universidad de Navarra* 11. 13-36.

### **Arias, P.**

2014 La muerte entre los cazadores-recolectores. El comportamiento funerario de la Península ibérica durante el Paleolítico Superior y el Mesolítico. *In: Guerra, E. Fernández, J. (Koord.). La muerte en la prehistoria ibérica: Casos de estudio.* 49-77. Univ. de Valladolid.

### **Arias, P., Álvarez-Fernández, E.**

2004 Iberian Forages and Funerary Ritual-a Review of Paleolithic and Mesolithic Evidence on the Peninsula. *In: González, M., Clark, G.A. (Arg.). The Mesolithic of the Atlantic façade: Proceedings of the Santander Symposium.* Anthropological Research Papers 55. 225-248. Arizona State University.

### **Armendáriz, A.**

1994 El mundo funerario en las épocas prehistóricas. *Cuadernos de Sección. Ciencias Médicas* 3. 161-167. Donostia.

**Arsuaga, J.L., Martínez, I., Arnold, I.J., Aranburu, A., Gracia-Téllez, A., Sharp, W.D., Quam, R.M., Falguères, C., Pantoja-Pérez, A., Bischoff, J., Poza-Rey, E., Parés, J.M., Carretero, J.M., Demuro, M., Lorenzo, C., Sala, N., Martín-Torres, M., García, N., Alcázar de Velasco, A., Cuenca-Bescós, G., Gómez-Olivencia, A., Moreno, D., Pablos, A., Shen, C., Rodríguez, I., Ortega, A.I., García, R., Bonnati, A., Bermúdez de Castro, J.M., Carbonell, E.**

2014 Neandertal roots: Cranial and chronological evidence from Sima de los Huesos. *Science* 344. 1358-1363.

### **Aura, J. E.**

2010 Uno de los nuestros: Notas para una arqueología de las prácticas funerarias de los cazadores prehistóricos de la Península Ibérica. *In: Pérez, A., Soler, B. (Koord.). Restos de vida, restos de muerte: la muerte en la prehistoria.* 31-44. Diputación de Valencia.

**Bermúdez de Castro, J.M.**

1995 Los homínidos de la Sima de los Huesos del karst de la Sierra de Atapuerca: número mínimo de individuos, edad de muerte y sexo. *In: Bermúdez, J.M., Arsuaga, J.L., Carbonell, E. (Koord.). Evolución humana en Europa y los yacimientos de la Sierra de Atapuerca. Actas 1. 263-283. Junta de Castilla y León.*

**Bernaldo de Quirós, F.**

1995 El nacimiento de la muerte. *In: Fábregas, R., Pérez, F., Fernández, C. (Arg.). Arqueoloxía da morte: Arqueoloxía da Morte na Península Ibérica desde as Orixes ata o Medioevo. 35-59. Xinzo de Limia.*

**Bogin, B.**

2010 Evolution of human growth. *In: Muehlenbein, M.P (Arg.). Human Evolutionary Biology. 379-396. Cambridge University Press.*

**Bosset, G., Valentin, F.**

2013 Pratiques sépulcrales mésolithiques de la moitié nord de la France: le cas des sépultures isolées et leur intégration dans l'espace. *In: Valentin, B., Souffi, B., Ducrocq, T., Fagnart, J. P., Séara, F., Verjux, C. (Zuz.). Palethnographie du Mésolithique. Recherches sur les habitats de plein air entre Loire et Neckar. Table Ronde Intern. de Paris (2010). 207-216. Société Préhistorique Française, Paris.*

**Carbonell, E., Mosquera, M.**

2006 The emergence of a symbolic behaviour: the sepulchral pit of Sima de los Huesos, Sierra de Atapuerca, Burgos, Spain. *Comptes Rendus Palevol 5. 155-160.*

**Carbonell, E., Rodríguez, J. P., Sala, R., Van Der Mader, V., Lorenzo, C., Mosquera, M., Vaquero, M., Rosell, J., Vallverdú, J., Burjachs, F., Hortolà, P.**

2005 *Homínidos: Las primeras ocupaciones de los continentes.* Carbonell, E (Koord.). Ariel. Fundación Atapuerca. Madrid.

**De la Rasilla, M., Santamaría, D.**

2011-2012 El Paleolítico medio en Asturias. *Mainake. XXXIII. 31-62.*

**De León Azcárate, J. L.**



2007 *La muerte y su imaginario en la historia de las religiones*. Serie Teología, 32. Univ. de Deusto.

**Díez, F.**

2009 *Breve historia del Homo sapiens*. Nowtilus. Madrid.

**Duarte, C., Maurício, J., Pettit, P.B., Souto, P., Trinkaus, E., Van Der Plicht, H., Zilhao, J.**

1999 The early Upper Paleolithic human skeleton from the Abrigo do Lagar Velho (Portugal) and modern human emergence in Iberia. *Science* 96. 7604-7609.

Einwögerer, T., Händel, M., Neugebauer-Maresch, C., Simon, U., Teschler-Nicola, M.

2008 The gravettian infant burials from Krems-Wachtberg. *In: Bacvarov, K. (Arg.) Babies Reborn: Infant/Child Burials in Pre-and Protohistory*. U.I.S.P.P. Proceeding of the XV World Congress. Oxford.

**Eliade, M.**

1999 *Historia de las creencias y las ideas religiosas*. Paidós Ibérica.

**Fortea, J., De la Rasilla, M., Martínez, E., Sánchez-Moral, S., Cavañeras, J.C., Cuezva, S., Rosas, A., Soler, V., Jume, R., De Torres, T., Ortiz, J.E., Castro, J., Bada, E., Altuna, J., Alonso, J.**

2003 La cueva de El Sidrón (Borines, Piloña, Asturias): Primeros resultados. *Estudios Geológicos* 59. 159-179.

**Gambier, D.**

1990 *Pratiques funéraires au Paléolithique supérieur en France: les sépultures primaires*. Bulletins et Mémoires de la Société d'Anthropologie de Paris 2. 19-28.

**Gargett, R. H.**

1989 Grave shortcomings: the evidence for Neandertal burial. *Current Anthropology* 30. 157-190.

**García, J., Sesma, J., Rojo, M. A., Alday, A., Garrido, R., García, I.**

2011 Los Cascajos (Los Arcos). *In: Bernabeu, J., Rojo, M. A., Molina, L. (Koord). Las primeras producciones cerámicas en el VI milenio Cal A. C. en la Península Ibérica.* Saguntum. Extra 12, 135-141.

**González, M. R.**

1982 *El Asturiense y otras culturas locales: la explotación de las áreas litorales de la región cantábrica en los tiempos epipaleolíticos.* Centro de Investigación y Museo de Altamira. Monografía 7. Santander.

**Händel, M., Einwögerer, T., Simon, U.**

2008 Krems-Wachtberg-A Gravettian Settlement Site in the Middle Danube Region. *Wiss. Mitt. Niederösterreich. Landesmuseum* 19. 91-108.

**Heim, J. L.**

1982 *Les enfants néandertaliens de la Ferrassie. Étude anthropologique et analyse ontogénique des Hommes de Néandertal.* Masson. Paris.

**Herrero, A. M.**

2013a Sobre la infancia en la Prehistoria: un análisis de las sociedades del interior peninsular entre el VI y III milenio A. C. *El futuro del pasado. Revista electrónica de Historia* 4. 69-86. Univ. Complutense de Madrid.

2013b Huellas en la oscuridad: El estudio de los individuos infantiles en los espacios domésticos de la prehistoria. *In: Aldea, J. M., López, C., Ortega, P., Soto, M<sup>a</sup>. R., Vicente, F. J. (Koord.). Los lugares de la historia.* 1019-1030. Temas y Perspectivas de la Historia 3. Antema arg. Salamanca.

2015 Ajuares a la muerte de los niños: evolución de los ajuares funerarios en las tumbas infantiles entre el Neolítico y el Calcolítico del Interior Peninsular. *In: Rocha, L., Bueno-Ramirez, P., Branco, G. Death as Archaeology of Transition: Thoughts and Materials. II International Conference of Transition Archaeology: Death Archaeology.* 189-196. BAR: S2708. Oxford.

**Jacks, M., Lubell D.**

2012 Mortuary archaeology of the muge shell middens. *In*: Gibaja, J. F., Carvalho, A. F., Chambon, P. *Funerary practices in the Iberian Peninsula from the Mesolithic to the Chalcolithic*. 67-76. BAR: S2417, Archeopress.

**Jochim, M.**

2002 The Mesolithic. *In*: Milisauskas, S. (Arg.). *European Prehistory*. 115-141. New York.

**Leroi-Gourhan, A.**

1994 *Las religiones de la historia*. Laertes. Barcelona.

**Lombo, A., Hernando, C., Alconches, L., Lanau, P.**

2013 La infancia en el Paleolítico superior: presencia y representación. *El futuro del pasado* 4. 41-68. Univ. de Salamanca.

**Maringer, J.**

1972 *Los dioses de la Prehistoria. Las religiones en Europa durante el Paleolítico*. Destino Arg. Madril.

**Maureille, B.**

2002 La redécouverte du nouveau-né néandertalien Le Moustier 2. *Paleo* 14. 2-21.

**May, F.**

1986 *Les Sépultures préhistoriques*. CNRS, Paris.

**Menéndez, M.**

2014 El Paleolítico Medio. *In*: Guerra, E., Fernández, J. (Koord). *La muerte en la prehistoria ibérica: Casos de estudio. Studia Archaeologica* 99. 259-299. Univ. de Valladolid.

**Menéndez, M., Jimeno, A., Fernández, V. M.**

1997 *Diccionario de Prehistoria*. Alianza. Madrid.

**Mingo, A.**

2012 Epipaleolítico y Mesolítico de la Península Ibérica. *In*: Menéndez, M. (Koord). *Prehistoria Antigua de la Península Ibérica*. 467-521. UNED. Madrid.

**Mithen, S.**

1998 *Arqueología de la mente*. Crítica. Barcelona.

**Morales, E.**

1985 Bogebakken: Un cementerio Mesolítico en Dinamarca. *Revista de Arqueología* 55. 12-20.

**Mujika, J.A.**

2007-2008 La gestión de la materia prima ósea en la fabricación de objetos durante la prehistoria. *Veleia* 24-25. 531-568.

**Müller-Karpe, H.**

1995 *Historia de la Edad de Piedra*. Grandes Manuales. Gredos.

Nawalade-Chavan, S., McCullagh, J., Hedges, R.

2014 New Hydroxyproline Radiocarbon Dates from Sungir, Russia, Confirm Early Mid Upper Palaeolithic Burials in Eurasia. *Plos One* 9. 1-8.

**Olària, C.**

2003 La muerte como rito transcendental. Los rituales funerarios del epipaleolítico-mesolítico y su probable influencia en el mundo megalítico. *Cuadernos Prehistoria y Arqueología* 23. 85-106.

2008 Restos y tumbas infantiles y juveniles en la Prehistoria europea: del Musteriense al Mesolítico. In: Gusi, F., Muriel, S., Olària, S. (Koord.). *Nasciturus, infans, puerulus vobis mater terra*. 387-473. Diputación de Castellón.

**Parés, J. M., Pérez, A.**

1995 Paleomagnetic Age for Hominid fossils at Atapuerca Archaeological Site. *Science* 269. 830-832.

**Pérez, J. M.**

2007 Restos fósiles humanos en el Paleolítico Superior de la Península Ibérica. *Arqueoweb*, 2, 1-17.

2012-2013 Las prácticas funerarias en la Península Ibérica durante el Paleolítico superior y el Epipaleolítico. *Arqueoweb*, 14. 227-267.

**Pettit, P.**

2011 *The Paleolithic Origins of Human Burial*. Routledge. Londres.

**Piaget, J.**

1991 *Seis estudios de psicología*. Labor. Barcelona.

**Quéchon, G.**

1976 Hommes du Paléolithique supérieur. In: Lumley, H. (Zuz.) *Préhistoire Française* 1, 728-733. CNRS.

**Rivera, A.**

2010 Conducta simbólica. La muerte en el musteriense. *Zephyrus* LXV. 39-63.

**Rodríguez, J. P., Lozano, M.**

2002 La contribución de Atapuerca a la arqueología prehistórica. *Minus X*. 9-30.

**Rosas, A.**

2012 Paleoantropología de la Península Ibérica: El Paleolítico. In: Menéndez, M (Koord.). *Prehistoria Antigua de la Península Ibérica*. 121-160. UNED. Madrid.

**Rosas, A., Estalrich, A., García-Taberner, A., Huguet, R., Lalueza-Fox, C., Ríos, L., Bastir, M., Fernández-Cascón, B., Pérez-Criado, L., Rodríguez-Pérez, F.J., Ferrando, A., Fernández-Cerezo, S., Sierra, E., De la Rasilla, M.**

2015 Investigación paleoantropológica de los fósiles neandertales de El Sidrón (Asturias, España). *Cuaternario y Geomorfología* 29 (3-4). 77-94.

**Rosas, A., Fortea, J., De la Rasilla, M., Fernández, P., Hidalgo, A., Lacasa, E., Martínez-Maza, C., García, A., Bastir, M.**

2005 Restos neandertales de la Cueva de El Sidrón: una restauración al servicio de la investigación paleontológica. *Boletín del Instituto Andaluz del Patrimonio Histórico* 53. 70-73.

**Rozoy, J. G.**

1978 *Les derniers chasseurs: L'Épipaléolithique en France et en Belgique*. Essai de Synthèse, II. Bulletin de la Société Archéologique Champenoise. Charleville.

**Sarasketa-Gartzia, I.**

2015 Las primeras necrópolis en la Europa Atlántica: prácticas funerarias y dieta durante el Mesolítico. *CKQ* 5. 157-174. Leioa.

**Schulting, R. J.**

1999 Nouvelles dates AMS à Tévéc et Hoëdic (Quiberon, Morbihan). Rapport préliminaire. *B.S.P.F.* 96, 203-207.

**Tapia, J., Álvarez, E., Cubas, M., Cueto, M., Etxeberria, F., Gutiérrez, I., Herrasti, L., Ruiz, M.**

2008 La cueva de Linatzeta (Lastur, Deba, Gipuzkoa). Un nuevo contexto para el estudio del Mesolítico en Gipuzkoa. *Munibe* 59. 119-131.

**Vanhaeren, M., D'Errico, F.**

2001 La parure de l'enfant de La Madeleine (fouilles Peyrony). Un nouveau regard sur l'enfance au Paléolithique supérieur. *Paleo* 13. 2-55.

**Villaverde, V.**

2010 Las primeras prácticas funerarias de la prehistoria. In: Pérez, A., Soler, B. (Coord.). *Restos de vida, restos de muerte: la muerte en la prehistoria*. 17-30. Diputación de Valencia.

**Wunn, I.**

2012 *Las religiones en la prehistoria*. Akal. Madrid.

**Zilhao, J.**

2005 Burial evidence for the social differentiation of age classes in the early upper paleolithic. In: Vialou, D., Renault-Miskovsky, J., Patou-Mathis, M. *Comportements des hommes du Paléolithique moyen et supérieur en Europe: territoires et milieux*. ERAUL 111. 231-241.

**Zilhao, J., Trinkaus, E. (Arg.)**

2002 *Portrait of the Artist as a Child: The Gravettian Human Skeleton from the Abrigo do Lagar Velho and its Archeological Context*. Trabalhos de Arqueologia 22. Lisboa.

Web orriak:

<http://dle.rae.es/?id=WWY3A7w|WWYSKxR> (kontsultatuta: 2016ko maiatzaren 5ean, 13:00).

<http://hominides.com/html/lieux/le-moustier-abris.php> (kontsultatuta: 2016ko maiatzaren 6an, 13:30).


<http://www.hominides.com/html/lieux/ferrassie-abri.php> (kontsultatuta: 2016ko maiatzaren 9an, 19:00).

[http://www.atapuerca.tv/atapuerca/yacimiento\\_huesos](http://www.atapuerca.tv/atapuerca/yacimiento_huesos) (kontsultatuta: 2016ko maiatzaren 9an, 20:45).

<http://www.hominides.com/html/dossiers/sepulture-tombe-prehistoire.php>  
(kontsultatuta: 2016ko maiatzaren 9an, 21: 45).

## 7. Eranskina

1. irudia. Mapa: aztarnategien kokapena.





## 2. irudia. Taula.

Aztarnategia	Kronologia BP	Adina	Hobia	Industria edo apaingarria	Fauna zatiak	Berezitasuna
<i>Gran Dolina</i> (Espainia)	Behe Paleol, <780.000	Metaketa: <5 urte: 4 5-9 " : 2 10-15 " : 3	Urte behin jarri, eta azpian "	Solte	<i>Ursus praeartos,</i> <i>Panthera sp.</i> <i>Vulpes sp.</i>	Kanibalismoa
<i>Sima de los Huesos</i> (Espainia)	Behe Paleol, ~430.000	Metaketa: 4-6 urte 10-11 "	-	Aurpegibiko 1	-	Kanibalismoa
<i>El Sidrón</i> (Espainia)	Erdi Paleol, 60.000-40.000	Metaketa: 3 nerabe 2 mutil gazte Ume txikiagoa	-	-	-	Kanibalismoa Talde berekoak, patrilokalak
<i>La Ferrassie</i> (Frantzia)	Erdi Paleol, 75.000-60.000	<i>Ferrassie 3:</i> 10 urte	Sutegi gainean	-	-	-
		<i>Ferrassie 4 eta 4a:</i> Jaioberria Fetu bat	Txikia	-	-	-
		<i>Ferrassie 5:</i> 7 hilabeteko fetua	Obalatua oso txikia tumuloarekin	2 karraskailu Punta 1	-	-
		<i>Ferrassie 6:</i> 3-5 urte	Kareharrizko lauzekin mugatutakoa, naturala	-	-	Garezurra gorputzetik bananduta
<i>Le Moustier</i> (Frantzia)	Erdi Paleol, 40.300±2600	<i>Le Moustier 1:</i> 15 urte 6 "	-	Moustier tipokoa	Uro Bisonte Zaldi Errinozero iletsu Elur-oreina Oreina Basahuntza	-
	Erdi Paleol, 42600±3700	<i>Le Moustier 2:</i> Jaioberria: 4-9 hilabete	Luzeera 0,5 m Sakonera 0,4 m			-

<i>Lagar Velho</i> (Portugal)	Goi Paleol, 25.000-24.500	4-5 urte	Harpearen hormaren alboan	<i>Littorina obtusata</i> maskor zulatu Bi oreinen betortz hondar	Oreinen bi pelbis Untxi txikia	Garezurraren zati isolatuak <i>H. n.</i> eta <i>H. s</i> hibridazioaren hipotesia Okrea: Hezurretan eta sedimentuan. Ikatza: <i>Pinus</i> <i>sylvestris</i>
<i>Sungir</i> (Errusia)	Goi Paleol, 38000-34000 28000-26000	12-13 urteko neska 8-9 urteko mutila	Bai	Neska: 8 xabalina 2 sastakai Zulatutako 2 makil Bolizko 1,66 m- ko lantza Eztenak Gai geometrikoaz apaindutako diskoak Bolizko mamut iruditxo bularrean 4900 bolizko koilare Eskumuturrak Eraztunak	-	Buruak bata bestearen kontra Alea zulatuak soineko bati josita
				Mutila: 3 xabalina Sastakai 1 2,42 m-ko bolizko lantza Bolizko zaldi iruditxo bularrean Gerrikoa: ipar azeriaren polarrean 250 betortz hortzekin		
<i>Watchberg</i> (Austria)	Goi Paleol, 27.000	Bikiak: 9-10 hilabete	Txikia. Estalkia: mamut eskapula. Sostengatzeko: mamut ebakortza	35 bolizko ale inguruan	-	Manipulazio artifizialak
<i>La Madeleine</i> (Frantzia)	Goi Paleol, 10190±100	2-4 urte	Zuzenean lurrean indusita Garezurra inguratuz 3 harri egitura erdi biribil bat eratuz	Itsas maskorrak Oreinen hortzak <i>Turritellak</i> Gorpua hortz zulatuekin nahastuta	-	-
<i>Cabeço da</i> <i>Amoreira</i>	Zaharrena Mesol,		Gorputza			Mendebalde-

(Portugal)	7030±350 <b>Neol,</b> 3-4 mailak 6050±300	CAM001 ume <b>1</b>	maskortegian daude	Maskorrak	-	ekialde posizioa. Lotura anatomikoetan alterazioak
<i>Moita do Sebastiao</i> (Portugal)	Mesol, 7350±350	16 ume ehorzketa: 3 <b>hirukoitzak</b> 4 <b>bikoitzak</b> 9 <b>banakakoak</b>	Gorputzak maskortegian daude	Maskorrak Maskor zulatuak	-	Nekropolitik 10 m-ra, <b>helduetatik</b> <b>bananduak</b> <b>1-7 urte arteko</b> <b>umeak hobi</b> <b>obalatueta</b>
<i>Téviac</i> (Bretainia)	Zaharrena (Mesol.) 6740±60  Berriena (Neol.) 5680±50	Hirukoitza	Maskortegian, gehienak tumuloarekin	Sastagaiak Eztenak Orratzak Kuartzoa <i>Littorina</i> <i>obtusata Trivia</i> <i>Europea</i> zulatuak	Orein hezurrak Basurde barailak	Okrea eta ikatza. Sutondoak
		Emakumea 2 hilabete				
		Gizona Emakumea 2 urte Gizona Umea				
		2 emakume Umea				
		Emakumea Fetua				
		Umea				
<i>Höedic</i> (Bretainia)	Mesol.-Neol, 6575±350	Neonato 1: 5- 6 hilabete 3 ume: 4-6 urte	Maskortegia	-	Orein hezurrak Basurde barailak	Eskuak lepoaren beheko aldean, <del>agian lotuak</del> <del>egon</del> <del>ziren</del>
<i>Bogebakken</i> (Danimarka)	Mesol.-Neol, 5810±105	Emakumea: 20 urte Fetua: 8-9 hilabete	Bai	Fetuaren bularrean: suharrizko ijjelkia Emakumea: Orein eta basurde 190 hertz zulatu, <i>Theodoxus</i> <i>fluviatilis</i> maskor zulatuak Haran: oreinen eta elur-orein 50 hertz zulatu	-	Bizilekua Aleak: soinekoari josita Fetuaren gorputza beltxarga baten hegoaren gainean
		Jaioberria		-	-	Suntsituta

		<b>Gizona Emakumea Urte 1</b>		<b>Suharrizko laban txikia Emakumea: bular aldean 50 hortz, batzuk zulatuak (3 gizakirenak, 6 oreinenak, 2 basurdenak, 1 uroena) Besteak 6ko taldeetan: artekak zituzten</b>	<b>Emakumearen bular aldearen azpian: lepahori baten beheko baraila Orkatz bi hezur</b>	-
<b>Linatzeta (Gipuzkoa)</b>	<b>Mesol. 7315±35</b>	<b>6 hilabete baino gutxiago</b>	-	-	-	<b>Garezurra: gainontzeko gorpua zanpatuta</b>